

Dolarra maila historikoetaraino balio gutxitu da

DONOSTIA

Iragan asteko joerari eutsiz, EEBBetako dolarren truke balioak behera egin zuen atzo nazioarteko finantza merkatu guztietan, eta Japonian maila historikoetaraino balio gutxitu zen: dolarreko 99,93 yen, hau da, II. Mundu Gerratik hona baliorik txikiena, iragan astean muga psikologikoa lehen aldiz hautsi eta ehun enetik behera jaitsi eta gero.

Ahulezia horren ondorioz, EEBBetako Erreserba Federalak hurrengo bilkuran bertako interes tipoa igo egingo dituela ia ziurtatzen dute finantza inguruetan. Adituen ustez, dolarren jaitsiera geldiarazteko modu bakarra hori izango litzateke.

Dolarren ahulezia iragan astetik dator, ostiraletan beherakada hau geldiarazteko munduko 17 banku zentralak esku hartu behar izan zuten eta, milaka milioi dolar erosi zituzten arren, ez zuten helburua lortu eta dolarretan etengabe balio gutxitzen jarraitu zuten.

Japoniako ekonomiarantz ezin okerragoa da joera hau, yena garestia baldin bada japoniarren esportazioak ere garestitu eta, beraz, kalte egiten dielako, eta bertako ekonomiararen oinarria kanpoko merkatua da.

Gainontzeko dibisen aldean ere galdu zuen balioa dolarrak, hala nola libra eta markuarekiko. Pezetaren aldean dolarrek 130,7 kotizatu zituen atzo, ostiraletan baino 1,2 gutxiago.

Adituen iritziz, dolarren ahuleziaren arrazoi nagusia EEBBen eta Japoniaren arteko arazo komertzialak dira, hain zuzen ere Japoniaren aldeko merkataritza saldoa. EEBBen defizita 8.400 milioi dolarrekoa —1,1 bilioi pezeta eta 48.000 milioi libera— izan zen apirilean.

Ameriketako balizko interes tasen igoeraren ondorioz, nazioarteko burtsetan ere galerak nagusi izan ziren atzoko ekitaldian. Bilboko Burtsak 4,11 puntu galdu zituen goizean, nahiz eta arratsaldean zertxobait irkuperratu eta 1,62 galdu.

Dolarren jaitsieraz gain, New Yorkeko galera handien berriek, Europako merkatuetako emaitza txarrek eta zor publikoaren merkatuetan eragin dituzte beherakada horiek.



Modu naturalean hazitako abelgorrien haragiaren labela aurkeztu zuen Jose Manuel Goikoetxeak. XOUSE SIMAL

Euskal Okela ikurrak kalitatezko haragia ezberdinduko du merkatuan

Orain arte kaleratu diren labeletan garrantzitsuena da

Euskal Okela kalitate ikurra aurkeztu zuten atzo ganaduzale, harakin, sukaldari eta erakundeetako ordezkariak Derioko (Bizkaia) Aberekin haztegian. Orain arte merkaturatu diren labeletan garrantzitsuena da, sektoreak urtero hamar mila milioi pezeta (416,6 milioi libera) fakturatzeko baititu.

M. ARREGI / DERIO

Modu naturalean hazitako abelgorrien haragia merkaturatzeko labeletan garrantzitsuena berezia azpimarratu zuen atzo Derion Jose Manuel Goikoetxea Gasteizko Gobernuak Nekazaritza eta Arrantza sailburuak, eta urtean haragitarako 55.000 abere hiltzen direla adierazi.

Dagoeneko merkaturatu dira Arabako Patata, Euskal Bildotsa, Baserriko Oilaskoa, Euskal Ez-tia, Gernikako piperrak eta barazki eta fruituen Euskal Baserri kalitate labelak. Dena den, fak-

turazio eta negozio bolumenari begiratu erakusle nagusia okelarena dela zioen Goikoetxeak.

Kalitate ikurra duten gainontzeko produktuek legez, Euskal Okela labela izango duen haragiak kontrol neurriak izango ditu aberearen hazkuntzetik hasi eta salmenta tokietaraino, hiltegi-tako baldintza bereziak ahaztu barik.

Kalitatezko Euskal Labela Arantzako Kontseiluak jarritako baldintzen arabera, hiru modutara merkaturatuko da haragia, txahalarena, zaharrarena eta idiarena ezberdinduz.

Eusko Jaurlaritzak duela urte bi onartu zuen Nekazaritza plan estrategikoan jasotzen da kalitate labearen ekimena. Helburua kontsumitzaileari kalitatezko produktua garrantzitsuena izan zuten Gasteizko sailburuak, eta azkenean etekina aterako dutenak ganaduzale, harakin eta eroslea bera direla gaineratu zuen.

KONTSUMITZEN DENAREN HERENA EKOIZTEN DA EAE defizitarioa da abelgorri okelaren produkzioan, kontsu-

mitzen denaren herena bakarrik ekoizten baita bertan. Hala ere, produkzio ahalmena bikoitza izan daitekeela ziurtatu zuten atzoko aurkezpenean sektoreko ordezkariak.

Dena den, kalitatezko haragiaren kontsumitzaileak gutxiago izanik eskariari erantzuteko nahikoa okela ekoiztuko da Goikoetxearen esanetan. Modu naturalean hazitako ganaduzale okela ohizkoa baino garestiagoa izango da merkatuan, baina hori epe ertainera igarriko dela zehaztu zuten sailburuak, «eskaria sendotzen denean».

Okela produkzioari dagokionez, Gipuzkoan txahalen % 75 haragitarako hazten dira, Bizkaian kopuru hau % 50ekoa da eta Araban, berriz, % 20koa. Kopuru hauek handiagoak ez izatearen arrazoia prezioen egonkortasun falta da.

Kontsumoari helduz, euskal ganaduzale okela batez ere bailaretan eta herrigune txikietan kontsumitzen dela adierazi zuten sektoreko iturriek. Horrela, milioi erdi biztanlek jaten dute EAEn ekoizten den haragiaren % 70.

Altzairutegia jarri arte AHVko labeek eusteko eskatu du Eusko Alkartasunak

GASTEIZ

Altzairutegi pribatua abian izan arte AHVko Sestaoko labe garaiek beren jarduerarekin jarraitzea jasoko duen ez-legezko proposamena onartzeko eskatu zuen atzo Eusko Alkartasunak Gasteizko Legebiltzarrean.

Rafael Larreina EAko parlamentariak ziurtatu zuenez, bere taldeak dituen «datu ofiziosoen» arabera CSIk datorren abuztuan

itxi nahi ditu Sestaoko labeak, «enpresak likidezia positiboan duen unean».

Parlamentariaren esanetan, AHVko birmoldaketa plana onartu zenean pezetaren kanbioa, altzairuaren prezioa eta lantegien errendimendua «aurka» zituen siderurgi enpresak. Orain, berriz, kontra zeuden faktoreak aldatu egin direla eta ondorioz AHVko instalazioek «produkzio eta fakturazio mugak

gaintzen» ari direla ziurtatu zuen Larreinak.

Ildo horretan, Sestaoko instalazioak abuztuan itxiko balira merkatua eskaintza barik geratu eta kanpoko altzairua sartuko litzatekeela uste du EAK. «Egoera hau sendutuz gero altzairutegi berriak ez luke merkaturik izango, Europako Batasuneko altzairutegi handiek izango luketelako kontrola» esan zuen parlamentariak.

Matramaren boikotatzera deitu dute zamaketariak

L.F. / BAIONA

Frantziako portuetako CGTKo idazkari nagusi gehienek ostegunetik aurrera «Matrama enpresaren boikotatzera leku guztietan» deitu dute. Bestalde, portuko lanak murriztuko dituztela eta ezohizko orduak ez dituztela eginen erabaki zuten atzo Baionan, «Baionako zamaketarien arazoei aterabidea aurkitu arte». Epe jakin gabeko ekintzetan parte hartzea erabaki zuten, Baionako zazpi zamaketariak gose greban 36. eguna bete dituztenean.

Daniel Lefevre, zamaketarien CGT sindikatuko idazkari nagusiaren esanetan, «bi zamaketarien berrintegrazioa eta behin-behineko langileak enplegatzeke lehentasuna» eskatu zuten Frantziako zamaketarien ordezkariak. «Gure premiatasuna Baionan dago eta negoziazioak beharrezkoak dira» gehitu zuten Lefevrek.

Bestalde, nagusien batzordeak adierazi du diru laguntza emanen dietela behin-behineko sei langileei «birmoldaketa plan-gintza pean». Baliteke nagusiengandik 25.000 libera jasotzea eta Estatuak 40.700 liberako laguntza ematea. Lanpostuetarako Agentzia Nazionalaren laguntzarekin «beste lan baten aurkitzeko formakuntza» proposatu behar zuten atzo batzordeak, «langile horiek ez baititugu inoiz berriz hartuko gure lantegietan».

Atunzaleei laguntzeko untzia atzo atera zen Ondarroatik

ONDARROA

Atlantikoan hegaluzetan dabilzan Gipuzkoako eta Bizkaiko untziei lagundu eta frantziarren bolanta sareak kontrolatzeko atzo atera zen 'Endai' itsasontzia Ondarroako portutik. Greenpeace erakunde ekologistak «txalotu» egin du Eusko Jaurlaritzaren ekimena.

Untzian bi ikuskatzaile doaz, frantziarren legez kanpoko sareen irudiak eta bolanten neurriak hartzeko. Ondoren aktak Bruselara bidaliko dituzte. Dagoeneko itsasoan da Galiziako Xuntak helburu berberaz bidalitako untzia.